

MUSIKARAKO BEZ ZENTZUDUN ETA BIDEZKO BATEN ALDE



20 DE MAYO 2015
UN DÍA SIN MÚSICA

www.undiasinmusica.org

**215.000 SINADURA BAINO GEHIAGO BILDU DITUGU
JADA**

**PARLAMENTUAN BEREZKO TALDEA DAUKATEN
OPOSIZIOKO ALDERDI GUZTIEK BAT EGIN DUTE
ADIERAZPENAREKIN**

Datorren asteazkenean, maiatzaren 20an, zuzeneko musika itzali egingo da gure herrialdean 2012ko irailetik sektorea zergapetzen duen % 21 BEZaren kontra protesta egiteko. Izan ere, luxuko produktuei ezartzen zaien zerga-tasa da hori, eta hilgarria izan da zuzeneko musikaren industriarako.

Pasadan otsailaren 19an kanpaina aurkeztu zenetik, 170 elkarte eta enpresa baino gehiagok bat egin dute adierazpenarekin, eta 215.000 pertsona baino gehiagok sinatu dute change.org/undiasinmusica estekan. Azken asteotan, [agendatik maiatzaren 20a ezabatu zuten artista askok argazkia atera dute ahoa estalirik](#), datorren asteazkenean Espainiako hiriburu garrantzitsuetan nagusi izango den isiltasuna sinbolizatuz.

Asteazken honetan, MUSIKARIK GABEKO EGUNA ekimenaren sustatzaileek gaur arte erregistratu diren 215.000 sinadurak aurkeztuko dituzte Diputatuen Kongresuan, zuzenketa bat eskatzeko. Protestarekin solidarizatu eta pasadan otsailean argitaratu zen adierazpenarekin ofizialki bat egin duten hainbat artista ezagun, sektoreko profesionalak eta parlamentuko alderdi guztietako politikariak (Alderdi Popularra izan ezik) bertaratuko dira hitzordura.

PSOE, CIU, IU, EAJ eta Parlamentuko Talde Mistoa osatzen duten 18 diputatuek indarrak batu dituzte PPren gobernuaren kontra, eta, musikaren balioa defendatu dute, hausturarik gabe, guztion funtsezko eskubidea den heinean.

Hitzordua goizeko 10:00etan izango da, Diputatuen Kongresuan, eta bertan entregatuko dira sinadurak, musika zergapetzen duen BEZa berehala jaits dezaten eskatzeko.

Horrez gain, Musikarik gabeko Eguna hilaren 20ko goizaldean hasiko da, eta Espainiako hiriburu garrantzitsuenetako kontzertu-areto ia guztiek ateak itxiko dituzte, mezu argi batekin: **ITXITA BEZa DELA ETA.**

MUSIKARIK GABEKO EGUNA ekimenaren izenean, herritar eta komunikabide guztiei parte hartzeko eskatu nahi diegu, maiatzaren 20a izan dadin gure bizitzetan musikarik izango ez dugun egun bakarra.

#undiasinmusica

PRENTSA HARREMANA EUSKADI:

Amaia Ispizua: 679 467 195

amaia@getin.es

PRENTSA HARREMANA MADRIL:

Víctor Solvas: 669 736 478

prensa@apmusicales.com

www.apmusicales.com